

Sukaldari laguntzaileak PREST!



...eta kitto!

Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte, Urkizu, 11 - solairuarte. 20600 Eibar. Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Maider Aranberri, Koldo Mitxelena eta Eibarko ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Maider Aranberri eta Koldo Mitxelena.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa, Maider Aranberri eta Koldo Mitxelena.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako argitalpena



Urkizu eskolako LH osoa Arratera joan ginen irailaren 23an. Eguraldi ederra egin zigun eta primeran pasatu genuen. Urrian, 3. ziklokoak Aerobic saioak izan dituzte 2 arratsaldetan eta oso gustora jardun dute! Urriaren 4tik 8ra euskara kanpaina bat egin genuen Urkizun: "Euskararen Sari Nagusia" izena izan zuen. Talde batzuek kanpaina ongi burutzea lortu zuten, opari ederrak jaso zituzten.

Urriaren 4tik 19ra Urkizu Eskolako 1. mailako ikasleak igeriketa kanpaina izan zuten Ipuruako kiroldegian eta urriaren 18an, Urkizu eskolako Haur Hezkuntzako ikasleak, Coliseo zine aretora joan ziren "Txoritxoak" filma ikustera. Bikain pasa zuten.

Gelan bertsoak lantzen ibili ondoren, San Andres bertso lehiaketan parte hartzera animatu dira Urkizuko ikasle batzuk.

Azaroaren 5ean, Urkizun egiten dugun "Ezetx asmatu!" lehiaketaren 1. edizioaren sari banaketa izan genuen. Zorionak irabazleei eta baita parte-hartzaile guztiei ere!; Azaroaren 15ean Gaztañerre ospatu genuen.


Aupa danori, **La Salle Isasi** ikastetxetik. Azaroaren hasieran 4. mailakoek 3 egun pasa zituzten LURRASKA-n, Euskal Herriko animaliak, zuhaitzak eta natura ezagutzen. Azaroaren 13an, 5. eta 6. mailakoek sukaldaritza ikastaroa izan zuten ikastetxean bertan, eta azaroaren 15ean, urtero bezala, GAZTAÑERRE ospatu genuen gela-egindako eskulanak erakutsiz eta Isasi kalean gaztain usain ederra utziz. Egun berean, 1., 2. eta 3. mailakoak Coliseora Joan ziren Ponyo pelikula ikustera.

Kaixo **Arrateko Andra Maritik!** Honez gero lan pila bat eginda gaude denok eta hiruhilabeteko honetako ekintza eta jaietan murgilduta gaude.

Aurten bazirudien ekintza aldetik lasaiago ibiliko ginela, baina horrela hasi bagara ere, behin martxa hartuz gero, ezin gelditu! Azaroan 15ean Gaztañerre ospatu genuen eskolan. Pena eguraldia, aterpean ospatu behar izan genuen-eta, baina euriak ere ez zuen lortu atzera egiterik. Bertan erre genituen gaztainak, eskolako kide guztiok hartu genuen parte eta baita gurasoek ere, eskertzekoa horien laguntza eta partaidetza. Denok elkarrekin abestu eta jan genuen giro polita sortuz.

Jada hurrengo jaiarekin pentsatzen ari gara, San Andres eguna jai potoloa baita gure eskolan eta atzetik ekintza mordoa pilotzen zaigu, zuei ere, ezta? Beno, bada hurrengo alean kontatuko dizkizuegu eta bitartean horietako batzuetan elkartuko gara ondo pasatzeko!





HI ZKI SALDA

BILATU DE BABARRENA ESKUALDEKO
HERRIEN IZENAK

R	N	S	T	U	R	I	U	E	J	L	H	N	T	U
T	A	N	J	L	U	K	T	Z	H	M	K	N	S	I
Z	M	B	H	T	N	D	M	U	T	R	I	K	U	J
K	S	U	I	M	Z	A	B	L	K	H	B	D	O	R
S	J	N	I	E	S	T	R	A	B	I	O	G	L	E
K	M	T	Z	N	Q	V	A	R	S	T	M	K	H	J
L	U	P	E	D	B	U	N	O	K	C	D	U	B	H
T	R	N	K	A	M	T	U	S	C	T	J	E	B	K
N	S	P	U	R	I	G	L	E	O	K	N	P	B	D
D	L	M	E	O	K	T	H	Y	I	P	D	E	K	A

EIBAR
ERMUA
MENDARO
DEBA
ELGOIBAR
DURANGO
SORALUZE
MUTRIKU

JAN-ANDRESAK


O	M	S	M	N	U	S	V	K	G	L	T
D	S	A	G	R	K	U	R	R	H	X	Q
O	I	N	X	R	D	B	U	Z	O	T	P
L	N	-	L	O	J	Z	U	R	S	F	I
O	K	B	K	S	A	D	I	D	L	R	P
S	E	L	E	T	S	Z	T	P	R	G	E
T	O	A	R	W	O	U	M	A	Z	H	R
I	P	S	A	-	N	N	Y	L	K	R	
A	S	A	O	T	K	M	B	G	M	C	A
Y	H	-	S	A	G	A	R	R	A	K	W
E	S	R	K	R	L	A	T	N	P	N	T
P	-	R	I	S	T	Z	A	L	X	I	K
N	V	G	L	Z	C	B	D	E	J	D	B
S	A	R	A	L	F	V	R	K	H	-	O
T	X	G	K	A	N	I	A	T	Z	A	G


• Sagarrak
• San-blasa
• Txarriton
• Goeta
• Pierra
• Odolostia
• Goetzuak
• Erraskibak

Ezkerreko M. 1. + 1.

Margatu orotik marrazkiak.

1. margatu gorria
2. margatu urdina
3. margatu txuribeltzez motekin
4. margatu berdea






Lagundu xaguri gaita aurkitzen



1. Platan
2. Zuhaitz
3. Gaita
4. Gaita
5. Gaita
6. Gaita
7. Gaita
8. Gaita
9. Gaita
10. Gaita
11. Gaita
12. Gaita
13. Gaita
14. Gaita
15. Gaita
16. Gaita
17. Gaita
18. Gaita
19. Gaita
20. Gaita
21. Gaita
22. Gaita
23. Gaita
24. Gaita
25. Gaita
26. Gaita
27. Gaita
28. Gaita
29. Gaita
30. Gaita
31. Gaita
32. Gaita
33. Gaita
34. Gaita
35. Gaita
36. Gaita
37. Gaita
38. Gaita
39. Gaita
40. Gaita
41. Gaita
42. Gaita
43. Gaita
44. Gaita
45. Gaita
46. Gaita
47. Gaita
48. Gaita
49. Gaita
50. Gaita
51. Gaita
52. Gaita
53. Gaita
54. Gaita
55. Gaita
56. Gaita
57. Gaita
58. Gaita
59. Gaita
60. Gaita
61. Gaita
62. Gaita
63. Gaita
64. Gaita
65. Gaita
66. Gaita
67. Gaita
68. Gaita
69. Gaita
70. Gaita
71. Gaita
72. Gaita
73. Gaita
74. Gaita
75. Gaita
76. Gaita
77. Gaita
78. Gaita
79. Gaita
80. Gaita
81. Gaita
82. Gaita
83. Gaita
84. Gaita
85. Gaita
86. Gaita
87. Gaita
88. Gaita
89. Gaita
90. Gaita
91. Gaita
92. Gaita
93. Gaita
94. Gaita
95. Gaita
96. Gaita
97. Gaita
98. Gaita
99. Gaita
100. Gaita

Egileak: Sone, Iker, Ane.

Martin Teller.



AURKITU
ALTXORRA

Egileak: Xabier A., Jone D.C., Mikel K.

Zer esaten dio Tarzan-ek saguari?

- Zu hain txikia eta bibotearekin!

Eta zer esaten dio saguak Tarzan-i?

- Eta zu hain handia eta pardelarekin!



- Zein da animaliarik zaharrena?

Behia.

- Zergatik?

Zuri-beltzean dagoelako.



Irakasleak galdetzen dio Pepitori:

- Zerekin hil zuen David-ek Goliat?

- Motor batekin.

- Motor batekin? Pentsatu pixka bat. Ziur zaude ez zela "Honda" batekin izan?

- Ah! Motorraren marka ere esan behar nuen, ala?



Ume bat pilotarekin jolasten ari zen eta hortz bat erori zitzaion. Galdetu zion amari:

- Ama, ama, hortza erori zait. Zer egingo dut orain?

- Zure almohadaren azpian gorde eta Perez sagutxoak zerbait ekarriko dizu. Umeak amak esandakoa egin zuen eta hurrengo egunean amak galdetu zion:

- Zer ekarri dizu sagutxoak?

- Ezer ere ez. Papertxo bat bakarrik laga dit, eta bertan jartzen zuen: "jarraitu jokoan".



Umea etxera ailegatu da eta esaten dio aitatxori:

- Aita, albiste on bat eta txar bat daukat.
- Esaidazu lehenengo albiste ona.
- Hamar atera dut matematiketan.
- Eta orain esaidazu txarra.
- Gezurra dela.



Eskolan:

- Andereño, egin ez duen gauza baten-gatik ezin dela ume bat zigortu?
- Ez, jakina ezetz.
- Zoragarri, ez dut etxeko lanik egin.

Gizon bat lagun baten lorategira sartu da eta "kontuz txakurrarekin" zioen kartela ikusi du, baina txakurra ikusitakoan zera esaten dio lagunari:

- Zergatik jarri duzu kartel hori, zure txakurra oso oso txikia da-eta!
- Bai, badakit, baina ez dakizu zenbat bider zapaldu duten!

Txoritxo bat ziztu bizian zihoan hegan autopistatik, eta bat-batean motor baten aurka talka egin zuen, poofffff! Motorrean zihoana gelditu zen esanez:

- Ai eneeeee, txoritxoa akabatu dut!!
- Txoria zegoen lekura gerturatu zen eta bizirik zegoela ikusirik, etxera eraman zuen, kaiolan sartu eta esnea eta ura eman zion. Handik pixkatera txoria esnatu zenean esan zuen:
- Ai eneeeee, polizia akabatu dut eta preso sartu naute kartzelan!

Umeak aitari:

- Aita, amamarekin ezkondu nahi dut.
- Zelan ezkonduko zara, baina, nire amarekin?
- Zer? Zu ezkondu zinen ba nirearekin!

San Andres jaiak gozatuz topera!

Urtea zein azkar pasatzen den, ezta? Laster Gabonak datoz, baina horren aurretik Eibarren bada beste jai garrantzitsu bat: San Andres eguna. Eibartarrontzat oso jai berezia izaten da, eta umeez ere modu espezialean bizi duzue eguna. Eskolan azoka egiteaz gainera, Eibarren egiten den azokarekin asko gozatzen duzue.

Azaroaren 30ean ospatu genuen eibartarrok San Andres eguna. Gauza mordoa izan ditugu Eibarren egun horretan, baina aurreko egunetan ere izan da zer ikusi, zer entzun eta zer dastatu; izan ere, ekitaldiz beteriko egitaraua ekarri digu aurtengo San Andres jaiak ere.

Eskolarteko VII. Bakailao lehiaketa izan genuen hilaren 21ean, eta giro paregabea sortu zen Untzagan. Aurreko asteburuan, berriz, Eibarko Txirrindulari Elkartearen eskutik, egun osoan txistorra jateko aukera izan genuen. Ummm... zein gozoa zegoen txistorra, baietz?!

Aurreko astean batzuk eta aste honetan beste batzuk, eskoletan bertan egin duzue San Andres azoka.

Ah zelako azoka zoragarriak prestatu dituzuen zuen ikastetxeetan! Barazkiak, eztia, gazta, intxaurrak, txistorra... lan bikaina egin duzue aurten ere, eta zulo txo batetik ikusi ahal izan dudanez, azoka politak egin dituzue. Zorionak denoi! Eta zein dotore zeundeten denak, baserritarrez jantzirik! Desiatzen nago datorren urteko azokak berriz ere ikusteko!

Bertso lehiaketa

Urteroko moduan, aurten ere, ...eta kitto! Euskara Elkarteak San Andres bertso paper lehiaketa antolatu du. Eta urteroko moduan, lan izugarria egin duzue Eibarko ikasleek eta lan mordoa jaso ditugu. Eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi! Baina lehiaketa guztietan gertatzen den moduan, gutxi batzuk eramaten dute saria etxera, eta aurten, Juan Antonio Mogel ikastolako bi ikaslerentzat izan dira lehenengoko bi sariak. Mikel Rodriguez-entzat izan da lehen saria eta Iratik Larruskaintzat, berriz, bigarrena. Portaleko areto nagusian egin zen





bertso jaialdian jaso zituzten euren sariak irabazleek. Zorionak!

San Andres eguna

San Andres eguna da, baina, jai horietako egunik garrantzitsuenak. Eta egun horretako ekitaldi nagusia

zein den? San Andres azoka, zalantza barik. Aurten ere azoka bikainarekin gozatu ahal izan dugu eibartarrok ez ezik, baita inguruko herrietatik etorritakoek ere. Animaliak, landareak, barazkiak... zenbat gauza ikusi eta dastatzeko! Baina hori ere pasatu da... Hurrengo egun handia zein izango da??? LASTER GABONAK!!!!




Gabonak laster datozela-eta, etxean arbola jartzen duzuenontzat, oso modu errazean, arbola horretarako apaingarriak egiten irakatsiko dizuegu. Hemen bi irudi egingo ditugu, etxea eta arbola baten irudiak, baina zuen imaginazioa erabiliz, ziur nago gauza zoragarriak egingo dituzuela!

Materiala:

- + Kartoi izurtu edo ondulatu fina
- + Oihal zati estanpatuak
- + Botoiak
- + Alanbre fina, klip-ak edo mototsa egiteko ile-orratzak.

Pausoak:

- 1.- Kartoiaren atzealdean marraztu nahi duzuen irudiaren silueta (arbola, etxea, galtzerdia, izarra...)
- 2.- Moztu irudiak.
- 3.- Kolore ezberdinetako oihal zatiak moztu.
- 4.- Itsasi oihal zatiak kartoian.
- 5.- Kolore ezberdinetako botoi handiak hartu eta zuloetatik sartu alanbre zati bat, klip ireki bat edo mototserako ile-orratz bat. Iltzatu boiak kartoian edo oihalean eta itsasi soka bat irudien atzetik zintzilikatu ahal izateko.



IZARRAK ETA LIRAILI PRINTZESA

Antzina, gauzak ez ziren gaur egun diren bezalakoak. Garai hartan ez zegoen ez ilargirik, ez eta izarrik ere. Zeruak lurra ikutzen zuen ia-ia eta hodeiak, zer esanik ez, eskura zeuden.

Haurrak ondo baino hobeto ibiltzen ziren. Oso txikiak zirenez, ez zuten zerua buruaz jotzen eta egun osoa ematen zuten hodeiez egindako bolak elkarri jartzen, edurrezko bolak balira bezala.

Nagusiak, ordea, makurturik ibili behar izaten zuten beti zeruarekin kaskarrerekorik ez hartzeko. Zerua hain hurbil, hain behean, egoteak makina buruhauste eragiten zien. Gauean neka-neka eginda egoten ziren, egun osoan makurturik ibili ondoren. Gainera, gauak ilunak eta tristeak ziren ilargirik eta izarrik ez zegoelako.

Urruneko herrialde batean printzesa eder bat bizi zen. Izena ere oso polita zuen: Liraili (Liraili-k “egunsentia” esan nahi omen zuen, haien hizkuntzan).

Arratsalde gozo batean Liraili jauregiko lorategian zegoen josten. Aldean zeramatzan bitxiak oso astunak zirenez, buruko diadema, belarritakoak, eraztunak eta diamantezko lepoko luzea kendu eta bi hodeiren artean eskegi zituen.

“Orain askoz hobeto nago”, pentsatu zuen Lirailik zama hura arinduta. Dena den, bazuen beste kezka bat, beste buruhauste bat: josteari utzi eta burua altxatzen zuen bakoitzean zeru-sapaiari takarreko ederra jotzen zion. Horregatik bere nebari laguntza eskatzea erabaki zuen.

Neba Malakas deitzen zen (Malakas hitzak, “sendoa” esan nahi omen zuen). Izan ere, herrialde hartako gizonik indartsuena bera zen. Lirailik hau esan zion Malakasi:

“Malakas, bada garaia zure indarra jendearen onerako erabil dezazun, jendeari laguntzeko”.


“Zer nahi duzu egitea, Liraili?”

“Jaso ezazu zerua gorago. Hartara ez dugu zerupean makurturik ibili beharko”.

Malakas zeruari bultzaka hasi zen. Beno, bultzada bakarra egin zion, itzelezkoa. Zeruak gorako bidea hartu zuen eta ez zen berehala gelditu: egunak joan egunak etorri, zerua urrunduz joan zen.

Baina zer ahaztuko eta Lirailiri bitxiak hodeietatik hartzea ahaztu! Ooooh! Lastima! Ordutik aurrera bere buruko diadema zeruan zintzilik dago, eta guk “Ilargia” deitzen diogu. Baina bitxi gehiago ere ahaztu zuen: belarritakoak, eraztunak eta diamantezko lepokoa. Han goian daude guztiak: Izarrak.

Eskatu aitari edo
amari ipuin hau gaur
gauean kontatzeko.
MEREZI DU...



OSAGAIAK:

- Arrautza bat.
- Enpanadillak egiteko masa (egindakoa eros daiteke).
- Nahi duzuen osagaiak aukeratu, gaziak edo gozoak. Guk Yorkeko urdaiazpikoa eta gaztaitxoak hartu ditugu alde batetik, eta kalabazina eta mozzarella bestetik. Enpanadilla gozoak platano eta txokolatea-rekin bete ditugu.



PAUSOAK:

- 1.- Osagaiak moztu behar baldin badituzue, gurasoek moz ditzatela, baina zuek moztu nahi baldin badituzue, arriskurik gabeko aiztoa erabili, plastikozkoa adibidez.
- 2.- Osagaiak prest dituzuenean, enpanadillen masa laberako ontzi batean jarri eta betetzen hasi.
- 3.- Kontu handiarekin itxi enpanadillak sardexka baten laguntzarekin.
- 4.- Arrautza irabiatu.
- 5.- Silikonazko pintzel batekin arrautzaz igurtzi edo margotu enpanadillak.
- 6.- Sartu enpanadillak labean, kontu handiz, eta urre-kolorea hartu dutenean... Listo! Hor dituzue enpanadilla gozo-gozoak jateko prest!



Enpanadilla
gazi-gozoak



www.euskal-herria.org

Euskal Herriko mendiak gustoko badituzue, ez galdu aukera eta sartu zaitezte goian adierazitako helbidean.

Euskal Herriko mendi bakoitza non kokatua dagoen, argazki bikainez lagundurik aurkituko duzue, mendi horren inguruko informazioarekin batera. Mapak ere ageri dira, mendi bakoitzaren kokapen zehatza zein den jakiteko, botanikari buruzko informazioa ere izango da, eta baita monumento megalitikoaren inguruko berriak ere.

Mendizaleak bazarete, Euskal Herriko mendiak gertutik ezagutu nahi badituzue, hemen duzu aukera. Klikatu goiko helbide horretan, eta mundo zoragarria aurkituko duzue begien aurrean.

<http://eskulantxiki.blogspot.com>

Hona hemen eskulanak egiteko web orrialdea. Haurrentzako egoia izan daiteke oso material errazak erabiltzen dituztelako. Gainera zuen eskulanak ere bidal ditzazkezue.

Eskulanak irudiekin agertzen dira. Eskulan bakoitzak azalpen oso argiak dituzte eta zuek oso errez egin ditzazkezue. Animatu zaitetzte, beraz, sartu orrialde horretan, egizue eskulan politikak eta hala nahi izanez gero, bidali orri horretara bertara, beste batzuek ikus dezaten zein artistak zareten!



ARIES

Olentzerori bidali beharreko eskutitza amaitu duzu. Baina ez al zara konturatu zerrenda luzeegia egin duzula? Aukeraketa egin beharko zenuke.

TAURUS

Benetan txintxo zabilta Taurus, etxean asko laguntzen duzu eta eskolan ere oso pozik daude egiten duzun lanarekin. Jarraitu horrela, egiten duzun esfortzua saritu egingo dizue eta.

GEMINIS

Amets eta desio asko dauzkazu 2011ra begira. Hala ere, gauza bat eskatzea da eta beste bat horiek betetzea. Ahalegina, gutxienez, egin beharko dituzu.

CANCER

Aspaldian espero zenuen oparia jasoko duzu Gabonetan. Ilusio handia egingo duzu eta duzun guztia baloratzen lagunduko duzu.

LEO

Urteak pasa ahala, gero eta Gabonetako abesti gehiago ikasten dituzu, baina horrek ez du esan nahi egun osoa abesten eman behar duzunik.

VIRGO

Familia eta lagunak asko maite zaituzte, benetan ona eta formala zarelako. Olentzero oso ondo portatuko da zurekin.

LIBRA

Beti zaude besteek zer egiten duten begira. Arduratu zaitzek egin behar duzunaz, gauza on asko egiten dituzu eta.

SCORPIUS

Es zara oso formala izan 2010ean eta ondo dakizu hori. Hala ere ez dago zalantzarik persona ona zarenik. Zure alde ona gehiago erakutsi.

SAGITARIUS

Gauza on asko gertatuko zaizkizu ondorengo egunean, ahal duzun beste gozatu, egun zoragarriak izango dira eta poz- pozik ibiliko zara.

CAPRICORNIUS

Gabonak ate joka badaude ere oraindik aste batzuk falta dira, beraz ez hasi turroia eta polborioak jaten bestela ordurako nazkatuta egongo zara.

ACUARIUS

Normalean baino lasaiago zaude Gabonen aurretik. Zergatik? Nagusitzen ari zaren seinale da hori eta beste modu batean haritzen dituzula gauzak.

PISCIS

Telebista aurrean denbora larregi pasatzen duzu Piscis eta etxean ez duzu asko laguntzen. Amatatu telebista eta izan partehartzaileagoa.

TXIKI HOROSKOPOA

2010-EKO AZAROA

Orain arteko Txikinkesta atalak ere aldaketa izango du aurtengo ikasturtean. Orain arte lau umeri egiten genien inkesta, baina hemendik aurrera haur eta gurasoei egingo dizkiegu galderak. Eskerrik asko ume eta gurasoei zuen laguntasunarengatik!

Zelan bizi zenduan umetan eta gaur egunian San Andres azokia? ***Zelan bizi dozu San Andres azokia?***

Miriam Berasategi

Nere etxian bihotz-bihotzetik bizi izan doguz beti San Andres jaixak, eibartarrak garalako. Zeozer beti erosten dogu gaiñera. Txikittako gauza askorik ez dot gogoratzen, baiña gaur egunian, animalixak ikustia asko gustatzen jata. Oñ umiekin-eta gauzak desberdiñ ikusten dittugu, gehixago bizi izaten dogu azokia. Gaztetan, gabaz urtetzen genduan gehixago, oin, barriz, eguna aprobetxatzen dogu gehixago.

Xabier Sologaiztua

San Andres azokia gustatzen jata. Eskolan be egitten dogu eta asko gustatzen jata barazkixak-eta azokan jartzia. Animalixak be asko gustatzen jataz, batez be marrazkilluak. Nere osaban basarrixan ederto pasatzen dot, marrazkilluak harrapatzen.

Isabel Ochoa

Umetan juaten nintzan, bai, azokara, gurasuekin eta nere nebiakin. Ederto pasatzen genduan. Gaur egunian, umiekin juaten gara. Animalixak ikustia asko gustatzen jata, eta urtero erosten dogu ogixa, gaztaia eta euskal-pastelak. Gaiñera, egun horretan, lagunekin bazkarixa egitten dogu eta ondo pasatzen dogu. Umiak basarritarrez jazten dira, eta guraso batzuk be bai. Egoten dan euskal girua asko gustatzen jata.

Iñaki Fernandez

Aitatxo eta amaxokin urtero juaten naiz azokia ikustera. Lagunekin bazkaltzen dogu eta oso egun politta izaten da. Eskolan ere egitten dogu azokia, nik aurtan kalabaziña ekarri dot. Jaialdixa egitten dogu, eta abestixak eta bertsuak kantatzen dittugu. Txerrikume bat be zozketatzen dogu eskolan. San Andres azokatik gehixen animalixak gustatzen jataz, eta danen artian gehixen, txerrixa.





EIBAR KANTU KANTARI abenduaren 3an, danok euskal kanten kalejiran parte hartzera


Abenduan hotza egiten duela danok dakigu; horregatik antolatu behar dira giroa berotuko duten egunak. Abenduaren 3a euskararen eguna dela-eta, eta iaz Juan San Martin eibartarraren “zirikadak” eta “eztenkadak” irakurtzen hain ondo pasatu eta gero, beste gauzaren bat antolatu beharra zegoen, ezta?

Eibarren abestea betidanik gustatu zaigu asko, galdetu aita eta amari, hobe, galdetu aitxitxa eta amamari eta ikusiko duzue... Horregatik antolatu dute Udalak eta ...eta kitto!k “Eibar kantu kantari” kalejira. Horregatik gonbidatu gaituzte guztioi parte hartzera. Horregatik, gure betiko doinuekin, kalejira ederra egingo dugu ostira-

lean. Lehen Hezkuntzako lagun danak batuko gara Untzagan, eguerdiko ordubi eta erdiak pasatxo eta eskolaka abestuko dugu, San Andresekoak hasi, Arrateko Andra Marik jarraituta, Aldatze eta La Salle Isasi ondoren eta JA Mogelek amaituko du eguerdi-arratsaldeko ekitaldia (Urkizu eta Amañako lagunek euren eskoletan abestuko dute).

Baina ez da hor guztia amaituko, goizean gure anaia-arreba eta lehengusu-lehengusiñak ibiliko dira kalean kantuan. Arratsaldean, berri, Eibarko talde guztiak eta ondorioz herritar danak gonbidatu dituzte. Ahotsak prest dituzue? Abestia ikasi duzue? Azkar ibili, gutxi geratzen da-eta!!!





Donna Martinez